

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA

2025eko urtarrilaren 31n egindako ohiko bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak udaltzaingoko 23 agente-lanpostu betetzeko enplegu publikoaren eskaintza onetsi zuen

Funtzio Publikoaren Sailak, Segurtasun Sailarekin koordinatuta, udaltzaingoko agenteen lanpostuak betetzeko enplegu publikoaren eskaintza onestea aurreikusi du udaltzaingoarekin kidegoarekin lotutako jardueren artean.

Erabaki honen xedea da 2025eko enplegu publikoaren eskaintza onestea, zeina bi fasetan banatuko baita. Lehen fasea udaltzaingoko 23 agente-lanposturi dagokion enplegu-eskaintzak osatzen du. Plaza horiek hutsik daude lanpostuen zerrendan, eta aurrekontu-zuzkidura dute. Bigarren fasea 25 plaza sortu berrik osatuko dute. Oraingoz udal plantilla behin betiko onesteko prozedura bideratzen ari da, eta aurrekontua behin betiko onestearen mende dago. Lehen eskaintza honen gehigarria izango da, eta Gobernu Batzarrak onetsi beharko du.

Beraz, 2025erako enplegu publikoaren eskaintzaren lehen fasea onesten da, 23 agente-lanpostu betetzeko, honako hauetan ezarritakoaren arabera: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (TAOL) 91.1 eta 127.1.h) artikulua; Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren testuategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 70. artikulua; Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 52.1 artikulua, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen testuategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren 63. artikulua.

Birjartze-tasari dagokionez, Antolamendu Zerbitzuaren txostenaren arabera, lehentasunezko sektorea denez, bete egiten dira 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 20.1.bi.c) artikuluan udaltzaingorentzat ezarritako ehuneko 125eko birjarpen-tasari dagozkion mugak; aipatutako legearen indarraldia 2025. urterako luzatu da alderdi horri dagokionez.

Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren (EPOETB) 37. artikulua betez, udaleko langileen batzordearekin negoziatu da.

Era berean, txosten ekonomikoa egin da, baita kontu hartzailetza nagusiarena ere, eskaintza hau onestearen aldekoak.

Horrenbestez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak —abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua— 127. artikuluan aitortzen dizkion eskumenez baliatuz, eta 2023ko ekainaren 22ko erabakiaren bitartez Funtzio Publikoaren zinegotziaren esku utzitako aginpidea betez, Funtzio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkariak erabaki-proposamen hau aurkeztu dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehena. Udaltzaingoko agenteen 23 plaza huts —5, hizkuntza-eskakizunarekin eta derrigortasun-data igarota, eta 18, derrigortasun-datarik gabe— betetzeko lan-eskaintza publikoa onestea, zeinak kidego horretako enplegu-eskaintzaren lehen fasea osatzen baitu. Udaltzaingoko oinarritzko eskalako lanpostuak dira, agenteen kategoriakoak, C taldekoak eta C1 azpitaldekoak.

Bigarrena. Enplegu publikoaren eskaintza ALHAOn argitaratzea.

Erabaki honen kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik edo, aukeran, berraztertzeko errekurtsoa hilabeteko epean, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Orokorrari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluekin lotuta aurreikusitakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko urtarrilaren 28an

Funtzio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkaria
JON ARMENTIA FRUCTUOSO